


Errotabarri eskubaloit talde berria

Duela gutxi, Ermuko eskubaloit taldea bertan behera gelditu zen. Makina bat neska, talderik gabe gelditu zen eta ondorioz, guraso talde bat elkartu eta Errotabarri Eskubaloit taldea sortu zuten. 2007ko irailean izan zen hori. Geroztik, Bizkaiko ligan ari dira eta egun kadete mailako 2 talde eta infantil mailako beste bat osatu dituzte.

Olatz Bouzo da Errotabarri eskubaloit taldeko arduraduna, baina bere inguruan makina bat gurasoren ahalegina biltzen da. 3 entrenatzaile ari dira buru belarri lanean. Olatz Arrarte infantil mailako taldearekin eta Patricia Ortega kadete mailakoekin. Atezainen alorra Naiara Lasue-



nek lantzen du. Infantil mailan 14 neska dabilta eta 22 kadete mailan. Kadete mailan, bi talde ari dira. 2007ko denboraldian, kadete mailako talde batek euskal ligan jokatzeko eskubidea lortu

arren, Errotabarrik jubenil talderik oraindik ez duenez, ezin izan dute aurten euskal ligarako jauzia egin. Bizkaiko ligan ari dira talde guztiak eta momentuz, gauzak oso ondo doaz. Infantil mailako taldea, aurreneko postuetan da eta kadete mailako taldeak, lehen eta bigarren postuan dira.

Asteazken zehar lau aldiz egiten dituzte entrenamendu saioak kadeteek eta hiru aldiz infantilek Beti-Ondoko instalakuntzetan. Partiduak ere polikiroldegian eta Beti Ondon bertan jokatzen dituzte. Polikiroldegia ia jendez beteta egoten da eta Beti Ondokoak bera ere zaletu de-xente erakartzen ditu.


5 neska Euskal Herriko selekzioan

Urtarrilaren 2tik 8ra, Euskal Herriko selekzioak Vigon (Galizian) Espainia osoko el-

karte autonomo guztiak neur-tzen zituen txapelketa batean hartu zuen parte. Infantil zein kadete mailako taldeak ere izan ziren bertan. Errotabarri taldetik 5 neska lortu zuten txapelketan parte hartzea. Infantil mailan, Arantza Moreno eta Irene Oreka eta kadete mailan Oihana Gomez, Maialen Agirregomez-korta eta Lorea Arrizabalaga. Bizi izandako esperientzi-az oso pozik ageri dira guztiak nahiz eta hain egun gutxitan talde gisa jokatzeko aukera gutxi eskaintzen duen. Etor-kizunari begira, aurrera jarraitzeko asmoa dute guz-tiek, egun Akaba Bera Beran ditugun Matxalen Ziarsolo eta Esther Larreategik Ermuko jokalarien pausoei jarraiki.

Eurekin harremanetan jar-tzea nahi izanez gero, erro-tabarrieskubaloia@yahoo.es e-posta erabili.

Asier Ibaibarriaga



URRETA burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaiia	* Kit altzariak
* Rielak	

Zeharkaler 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masaieak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**